



EDURNE PASABAN

**HIRUGARREN AHALEGINA EVERESTEN.** Edurne Pasabaneke hirugarren ekinaldia zuen Everestean. Argazkian, 1999an, ipar-ekialdeko ertzean.

# Lehen neska Everestean

**EDURNE PASABAN.** Orain arte hiru euskal emakumek igo zuten zortzi milako bat: Amaia Aranzabal, Pili Ganuza eta Yoli Martinek

R.O. | DONOSTIA

**E**durne Pasabanen izena ere, leku berezian agertuko da euskal mendizaletasunaren historia idatzian. Martin Zabaleta izan zen lehen, eta Edurne Pasaban ere halaxe izan da, lehen emakumea. Azken lau urteotan ibilbide azkarra osatu du mendizale tolosarrak. 1998an Dhaulagirin izan zen Tolosako espedizio batekin, eta zortzimila metroko marra horretatik gertu ibili zen. Hurrengo urtean Everestera joan zen espedizio italiar batekin. Iparraldeko bide normaletik egin zuten ahalegina, eta orduko hartan 8.300 metrotan geratu zen Edurne, haize bortitzak gorago joatea galarazita. Joan den urtean, Everestera eta ipar-ekialdeko ertzerara bueltatu zen

berrito Edurne Pasaban, Angel Navas, Iosu Feijoo eta Willy Bañalesekin. Goraxeago igo zen iaz, 8.500 metro ingurura, baina hotzaren ondorioz jaitsi egin zen, eta izozte arin batzuk izan zituen eskuko hatzetan.

Aurten, izozteetatik jada osatuta, hirugarren saioa egin du Everestean, mendiaren hegoaldeko oraingoan. Koke Lasa ormaiztegiarra (Gipuzkoa), Silvio Mondinelli, Alberto Magliano eta Mario Merelli italiarrak eta Ivan Vallejo ekuadortarra izan ditu taldekide. Hirugarrena izan da balekoa, atzo italiarrekin batera iritsi baitzen tontorrera.

## Bide urratzaileak

Everesteko historian Edurne izan da lehen emakumea, eta Edurneren historia partikularrean, Everest lehen zortzimila-

koa. Aurrez izan dira, ordea, bidea urratu duten beste emakume batzuk ere, eta zortzimilakotara igo denik ere bada gurean.

1992an, Amaia Aranzabal bergarra Cho Oyu tontorrera (8.201 m) igo zen, Josu Bereziartua senarrarekin. Aranzabal eta Bereziartua irailaren 25an igo ziren, eta hiru egun geroago, Pili Ganuza iruñeak tontor bera zapaldu zuen. Biek izozteak izan zituzten behatzen. Hurrengo urtean, Cho Oyun bertan, Yoli Martin basuriarrak errepikatu zuen balentria, Joseba Elorrieta eta Jesus Gomezekin batera.

Yoli Martin bera Everest igo zuten saiatu zen 1998an ipar aurpegiko bide zuzenetik, baina mendiaren baldintza gogorren ondorioz, atzera egin zuten.

## DATU AIPAGARRIAK

### Egun handiaren zergatiak

Egun handia izan zela esatea ez da doakoa; datu soil batzuei erreparatzea besterik ez dago.

**HAMASEI EUSKALDUN:** Orain arte 12 ziren Everestera igotako euskaldunak: Martin Zabaleta, Pitxi Egillor, Patxi Fernandez, Felix eta Alberto Iñurrategi, Mikel Reparaz, Pedro Tous, Josu Bereziartua, Alberto Zerain, Jose Mari Oñate, Jose Ramon Agirre eta Juanito Oiarzabal bera. Atzodanik, Juanitoren errepikapena, eta beste lau izen erantsi behar dizkiogu zerrendari: Juan Vallejo, Edurne Pasaban, Patxi Goñi eta Julen Reketa.

**LAU IGOERA OXIGENORIK GABE:** Euskaldunei dagokienez, orain arte Felix eta Alberto Iñurrategi baino ez ziren igo Everestera oxigenoaren laguntzarik gabe. Atzodanik lau dira. Bestalde, Oiarzabal eta Vallejo 79 eta 80. mendizaleak dira Everest oxigenorik gabe igotzen. Igoerak, guztira, 101 izan dira.

**LEHEN IGOERA IPARRALDETIK:** Oiarzabal eta Vallejorena lehen igoera izan da Everestean ipar aurpegitik edo Tibetetik. Orain arteko 12ak Nepaldik edo mendiaren hegoaldeko izan ziren.

**EGUN BAKARREAN IGOERA GEHIEN:** Everestean, orain arte, 1992ko irailaren 25a izan zen euskaldun gehien igo zen eguna. Lau izan ziren orduan: Pitxi Egillor, Patxi Fernandez eta Felix eta Alberto Iñurrategi.

rrean beste euskal mendizale batekin topo egin zuela esan baitzuen *talkie* bidez. Ez zuen izenik eman, eta hor hasi zen jakin nahi eta ezina. Mendiaren hegoaldeko igotakoren bat behar zuen nahitaez, eta ez zegoen modurik nor zen baieztatzeko. Azkenik, Euskal Herrian eguerdia pasata zela, Gaztela Leongo espedizio bateko kideek Edurne Pasaban gailurrera iritsi zela baieztatu ziguten, eta lasterrera, Hego Lepora jaitsi zela ere bai, pozik eta onik.

Baina egunak beste ezusteko bat eman zuen. Edurne Pasabaneke berak, Gaztela-Leongo espediziokideen bitartez, jakinarazi zuen Patxi Goñi eta Julen Reketa ere iritsi zirela Everesteko tontorrera. Bost igoera, beraz, guztira.

Baliteke gehiago igotzea gaur, Iñaki Otxoa de Olza Hego Lepoan dagoelako, gora bidean. Koke Lasa, berriz, bigarren kanpamentuan zen atzo. Ea beste denak onik iristen diren gaur kanpamentu nagusira.

**BilboGas,**  
eguna hasteko  
modurik onena

Ur beroarekin dutxa on bat hartzea baino gauza hobirik ez dago eguna hasteko. Inoiz nagi bainaz, Bilbogas tenperaturan, nire buru gainean erortzen den urak eragindako sentsazioan pensatzen dur... eta altxatzeko eta den-denari aurre egiteko gogoa izaten dut.

**Eskerrik asko Bilbogas.**

**BilboGas**  
ETXEGIRO GOXOA